



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

**Gradu Amaierako Lana**

# HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 IKASTURTEA

## ADIMEN GAITASUN HANDIKO NESKEN EZAUGARRIAK ETA HAUEI LAGUNTZEKO PROZEDURAK HAUR HEZKUNTZAN: EKARPEN DIDAKTIKOAK.

**Egilea:** Alba Chávarri Fernández

**Zuzendaria:** Izaskun Etxebarria Aizpuru

Leioan, 2015eko ekainaren 2an

© 2015, Alba Chávarri

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Marko teorikoa .....	5
1.1. Zer dira adimen gaitasun handiak?.....	5
1.2. Adimen gaitasun handiko haurren ezaugarriak Haur Hezkuntzan .....	8
1.3. Adimen gaitasun handiko neskak.....	10
1.3.1. Adimen gaitasun handiko nesken eta familien ezaugarriak .....	11
1.3.1.1. Nesken ezaugarriak .....	11
1.3.1.2. Familien ezaugarriak .....	13
1.3.2. Nesken arrakasta - porrotean eragina duten faktoreak .....	14
1.3.2.1. Presio eta estereotipo sozialak.....	14
1.3.2.2. Inguruneko faktoreak eta alderdi kulturalak.....	16
1.3.2.3. Hezkuntza sistemaren bidez jasotzen dituzten mezu kontraesankorrak .....	16
1.3.2.4. Arrakasta lortu duten emakumeen eredu falta.....	16
1.3.3. Adimen gaitasun handiko neskei laguntzeko prozedurak .....	16
2. Metodologia .....	18
3. Lanaren garapena .....	20
4. Ekarpen didaktikoak.....	21
5. Ondorioak.....	22
6. Erreferentzia bibliografikoak .....	24
ERANSKINAK.....	31
I. ERANSKINA. Berritzegunera bidalitako gutuna.....	31
II. ERANSKINA. AGHko neskak identifikatzeko eta laguntzeko behaketa-tresna. ....	32
III. ERANSKINA. Elkarrizketa lanean agertzeko baimen idatzia .....	37
IV. ERANSKINA. Irakaslearentzako elkarrizketa gida.....	38
V. ERANSKINA. Irakasleari egindako elkarrizketaren ondorioak .....	42
VI. ERANSKINA. Neska bideoan agertzeko baimen idatzia .....	44
VII. ERANSKINA. Bideoa sortzeko jarraitutako gidoia .....	45
VIII. ERANSKINA. Alcagi-ko datuak lanean agertzeko baimen idatzia .....	52
IX. ERANSKINA. Aupatuz-eko datuak lanean agertzeko baimen idatzia .....	53

**Adimen gaitasun handiko nesken ezaugarriak eta hauei laguntzeko prozedurak**  
**Haur Hezkuntzan: ekarpen didaktikoak.**

**Alba Chávarri Fernández**

UPV/EHU

Adimen gaitasun handiko nesken egoera oso berezia da. Adimen gaitasun handi gisa, oso neska gutxi daude identifikatuta. Horren arrazoia, besteak beste nesken ezaugarriak, portaerak, jasotzen duten hezkuntza eta inguratzen dituen gizartea dira. Hori dela eta, irakasleen lana arlo honetan oso garrantzitsua da. Horrexegatik, lan honen helburua, irakasleei eta familiei laguntzeko ekarpen didaktikoak sortzea izan da. Alde batetik, neska hauen ezaugarriak eta hauei laguntzeko zenbait prozedura azaltzen dituen bideoa sortu da, bestetik, neska hauek identifikatzeko eta laguntzeko behaketa-tresna proposatu da.

*Hitz gakoak: Adimen gaitasun handia, Haur Hezkuntza, generoa, ezaugarriak, laguntzeko prozedurak, irakasleak, familia.*

La situación de las niñas con altas capacidades es muy especial. Pocas son identificadas con altas capacidades, debido entre otras cosas a ciertas características y conductas que éstas manifiestan, la educación que reciben y a la sociedad que las rodea. Por ello, es muy importante el trabajo del profesorado en este ámbito. Así, el objetivo de este trabajo ha sido crear propuestas didácticas que sirvan de ayuda al profesorado y a las familias. Por un lado, se ha creado un video que explica las características de estas niñas y algunos procedimientos para ayudarlas, por otro, se propone una herramienta de observación con el objetivo de identificar y ayudar a estas niñas.

*Palabras clave: Altas capacidades intelectuales, Educación Infantil, genero, características, procedimientos de ayuda, profesorado, familia.*

The situation of girls with high intellectual capacities is very special. Few are identified with high capacities due among other things to certain characteristics and behaviours they manifest, the education they receive and the society around them. Therefore, the work of teachers in this field is very important. For that reason, the objective of this project has been to create educational proposals that will help teachers and families. On the one hand, it has been created a video explaining the characteristics of these girls and some procedures to help them, on the other hand, it has been proposed an observation tool in order to identify and help these children.

*Key words: High intellectual capacities, pree-school education, gender, characteristics, procedures to help, teachers, family.*

## Sarrera

Lan honen xedea, gure gizartean oso ezezaguna den adimen gaitasun handiko nesken egoera berezia ezagutaraztea eta lagungarriak izan daitezkeen prozedurak adieraztea da. Era berean, lan honen oinarria Haur Hezkuntzako neskak izango dira. Baina, generoaren gaian sakondu aurretik, adimen gaitasun handiaren inguruan dauden eredu eta haur hauen ezaugarriak aztertuko dira.

Gure gizartean, adimen gaitasun handiko neska kopuru txikia dago identifikatuta. Jasaten duten presio sozialaren eraginez, arrakastari dioten beldurraren eraginez... neskek haien gaitasunak ezkutatzeko joera daukate. Hori dela eta, zaila izaten da haur hauek antzematea. Beraz, zoritxarrez, oraindik ere, gure gizartean adimen gaitasun handiko neskek mutilek bezalako aukerak ez dituztela eta neska hauek arrisku talde bat osatzen dutela baieztatu dezakegu. Horrexegatik, egoera hori ekiditeko, funtsezkoa da neska hauei txikiak direnetik arreta berezia eskaintzea.

Gure hezkuntza sistemak, sarritan ez die adimen gaitasun handiko nesken beharrei era egokian erantzuten. Neska hauek, maiz, inor ohartu gabe pasatzen dira hezkuntza etapa ezberdinetatik. Horrexegatik, lan honetan, neska horiek identifikatzeko helburuz, haien eta haien ingurunearen ezaugarri nabarmenenak aztertuko dira. Era berean, garrantzitsua da Haur Hezkuntzako irakasle moduan neska hauei laguntzeko trebatuta egotea. Hori dela eta, irakasleek haur hauei laguntzeko erabili beharko lituzketen prozedurak aipatuko dira. Lan honen azken xedea, irakasleei zuzendutako eta familientzat erabilgarria izan daitekeen adimen gaitasun handiko neskak identifikatzeko eta neska hauen beharrei erantzuten laguntzeko tresnak proposatzea izango da. Era honetan, irakasleok adimen gaitasun handiko nesken ezaugarriez eta portaerez kontziente izanda eta haur hauen beharrei nola erantzun jakinda, etorkizunari begira haien egoera hobetu daiteke.

Irakasle eta familiei zuzendutako azkeneko tresna horiek lortzeko, egileen ekarpenak eta gure ingurunean adimen gaitasun handiko hurrekin lan egin duen irakasle bati egindako elkarrizketa hartuko dira kontuan. Modu honetan, adituek esandakoa Euskal Herriko irakasle baten esperientziarekin alderatuko da.

## 1. Marko teorikoa


### 1.1. Zer dira adimen gaitasun handiak?

AGHak<sup>1</sup> zer diren definitzeko eta eredu ezberdinak azaltzeko, hainbat autonomia-erkidegok argitaraturiko gidetan oinarritu naiz. Hauek izan dira kontuan hartu ditudanak: Generalitat Valenciana (2002), Comunidad de Madrid (2007), Eusko Jaurlaritzak (2013). AGHak zer diren azaltzeko, aldagai ezberdinetan oinarritzen diren ereduak daudela hartu behar dugu kontuan:

#### 1) Errendimenduan oinarritutako ereduak:

Hiru eraztunen eredu honetan, haurrak gaitasun egonkorrak izan behar ditu. Gainera, sormena eta motibazioa adimena baino faktore erabakigarriagoak dira. Hiru eraztunen

eredu apurtzaile honen arabera, AGHko haur batek hiru ezaugarri hauek izan behar ditu. Renzulli, J. S. (1978). (*Ikus 1. Irudia*):



- Batez bestekoaren gainetik dagoen trebetasun orokorra eta espezifikoa.
- Sormen handia: pentsamenduaren originaltasuna, berrikuntza gaitasuna...
- Zereginetikiko ardura handia: helburu bat lortzeko iraunkortasuna, berezko motibazioa.

1. Irudia. Hiru eraztunen eredu. Renzulli (1978)

Errendimenduan oinarritzen den beste eredu bat, adimen gaitasun handia eta dohaina bereizten dituen da.

Honen arabera, haurra gaitasun natural batean edo bitan batez bestekoaren gainetik nabarmentzen denean adimen gaitasun handikoa<sup>2</sup> izango da. Baina, giza jardueraren

<sup>1</sup> Lanaren irakurketa errazteari begira, hemendik aurrera adimen gaitasun handiei erreferentzia egiteko AGH terminoa erabiliko da.

<sup>2</sup> Adimen gaitasun handikoe: oroimen ona, arretarako ahalmen handia, malgutasun kognitiboa etab. erakusten dute. Eusko Jaurlaritzak (2013).


**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

eremu batean edo bitan batez bestekoaren gainetik nabarmenduz gero, dohainduna<sup>3</sup> izango da. Gagné, F. (1985).

## 2) Orientazio soziokulturaleko ereduak:

Eredu honetan, testuinguru sozial eta kulturalari ematen zaio garrantzia. Adimenarekin batera, kanpoko faktoreak dira beharrezkoak: gizartearen euskarria, ingurune suspergarria, zortea une garrantzitsuetan etab. Tannenbaum, A. (1986).

Elkarrekiko mendetasun triadikoaren ereduaren arabera, AGHa fenomeno dinamiko bat da, gizabanakoaren eta haren ingurunearen arteko elkarreaginak sortua. Honetan, Renzullik, J. S. (1978) proposatutako hiru eraztunen ereduari hiru gizarte aldagai gehitzen zaizkio: eskola, lagunak eta familia. Mönks, F. J. (1992). (*Ikus 2. Irudia*).



2.Irudia. Elkarrekiko mendetasun triadikoaren ereduak. Mönks (1992)

## 3) Gaitasunetan oinarritutako ereduak:

Gaitasunetan oinarritutako ereduari erreparatuz, adimen anizkoitzen teoria arrakastatsua da gaur egun hezkuntza munduan gehien nabarmentzen dena. Adimena, buru-trebetasunen multzoa da, bizitzako gorabeheren eta kulturaren arabera aldatu egiten dena. Adimen mota bakoitza herentzia genetikoaren eta bakoitzaren ezaugarri psikologikoen emaitza da. Zortzi adimen mota aipatzen dira: adimen zinetiko-korporala, logiko-matematikoa, musikala, linguistikoa, espaziala, pertsona barrukoa, naturalista eta pertsona artekoa. Gardner, H. (1984).

<sup>3</sup>Dohaindunek: arlo jakin batean edo batzuetan errendimendu handia erakusten dute. Eusko Jaurlaritz (2013).

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Gardnerrek askotan egin die erreferentzia Adimen-Koizientea (AK) neurtzeko testei: ``No sirven, es como poner a alguien un sello en la frente: tú eres listo, tú no. Eso es muy negativo. Es mucho mejor descubrir en qué destaca alguien, qué debe aprender y darle ayuda para ello. Y si no es así, probar otra cosa´´. Gardner , H. (2012).

#### **4) Eredu kognitiboak:**

Eredu hauen barnean, teoria pentagonala da gehien nabarmentzen dena. Izan ere, honek, AGHak dituzten pertsonen adimenaren funtzionamendua ulertzen laguntzen du. Honen arabera, pertsona batek AGHak izango dituenean, ezaugarri hauek adieraziko ditu: Sternberg, R. (1986).

- Arrarotasun-irizpidea: ohikoa ez den ezaugarria izatea.
- Bikaintasun-irizpidea: eremu batean edo batzuetan gailentzea.
- Produktibitate-irizpidea: eremu konkretu batean potentzial handia erakustea.
- Frogagarritasun-irizpidea: adimen gaitasun handiak, fidagarriak eta baliagarriak diren proba bat baino gehiagok frogatu behar dituzte.
- Balio-irizpidea: sozialki onartuta eta balioztatuta dagoen dimentsio batean errendimendu handiagoa erakutsi behar du.

Arestian laburki azaldutako eredu hauei erreferentzia egin ostean, adimen gaitasun handiko gaiak ikuspuntu asko dituela ikus dezakegu. Adimen gaitasun handien kontzeptua asko aldatu da historian zehar. Horren ondorioz, ereduak kontzeptu horietan oinarritzen direnez, hauek ere aldatu dira. Hala ere, garrantzitsuena ez da kontzeptu zehatz bat finkatzea, baizik eta adimen gaitasun handiak identifikatzeko eta hauek dituzten pertsoneri erantzun egoki bat emateko baliabide material eta pertsonal nahiko izatea.

## 1.2. Adimen gaitasun handiko haurren ezaugarriak Haur Hezkuntzan

AGHko umeen ezaugarrien inguruan hitz egiterakoan, eskolatutako haurren % 2k AGHak dituela hartu behar dugu kontuan. Lara, M. (2015). Haur hauek oso talde heterogeneoa osatzen dute. Banakako eta haien inguruarekin erlazionatutako ezaugarri oso ezberdinak dituzte. Silvermanek <sup>4</sup> (1992) ezaugarri hauek sintetizatu ditu. Hala ere, guk egile gehiagoren ekarpenak hartu ditugu kontuan. Hona hemen haur hauen ezaugarri nagusiak:

- Jakin-min eta ikasteko gogo handiak dauzkate.
- Berezko motibazioa daukate.
- Ez ohiko energia maila daukate.
- Arrazoi konplexuak emateko gaitasuna daukate.
- Goiztiarrak izan daitezke.
- Hizkuntza oso ondo menperatzen dute. Hiztegi aberatsa erabiltzen dute.
- Epe luzerako oroimen aparta daukate.
- Induktiboki ikasten dute.
- Informazioa oso azkar barneratzen dute. Honek, eskolan aspertzea ekar dezake.
- Kontzentratzeko eta arreta mantentzeko gaitasun handia daukate.
- Pentsamendu sinbolikoa eta abstraktua daukate.
- Sormen handikoak dira.
- Originaltasun eta irudimen handia daukate.
- Zereginak ondo egiteko joera dute. Perfekzionistak dira.
- Jarrera kritikoa dute arauetikiko. Arauen zergatia jakin nahi dute.
- Oso sentiberak dira.
- Umore-sen handia eta sofistikatua daukate. Haien adinarekin bat ez datorrena.
- Inguratzen dituen munduarekiko sentsibilitate eta kezka handiak dauzkate.
- Gaitasun sensorial handia daukate: usainak, zaporeak, ehundurak...

---

<sup>4</sup> Silverman, L. adimen gaitasunen inguruan ekarpen garrantzitsuak egin dituen autorea da. Azkeneko 35 urteetan AGHko 6000 ume baino gehiago aztertu ditu. Era berean, honek AGHko pertsonak identifikatzeko eta hauen hezkuntzan laguntzeko hainbat metodo sortu ditu.



**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

- AGHko haur hauen garapen emozionala ez da erraza. Askotan, haien adin mental eta adin emozionalaren artean alde handia dago. Benito, Y. (1996).

Arestian, haur hauek orokorrean arrakasta dutela eta arlo askotan ohikoa dena baino lehenago garatzen direla aipatu da. Baina hau ez da kasu guztietan horrela izaten. Badira eskola porrota duten AGHko hainbat haur. Hauek, kontzentrazio gutxi, autokontzeptu negatiboa, motibazio eskasa etab. daukate. Era berean, ez dira eskolan onartuak sentitzen eta irakasleek, errendimendua haien ahalmenaren azpitik kokatzen dela diote. Mönks, F. J., eta Ypenburg, I. H. (2010)

Horrekin batera, askotan, ume hauen adimen gaitasunaren eta beste gaitasunen garapenaren artean tarte handia dago. Honi, disinkronia esaten zaio eta barne edo disinkronia sozialak aurki ditzakegu. Terrassier, J. C. (1990)

- Barne disinkroniak: adimen garapenaren eta heltze afektibo eta psikomotoarearen garapen erritmoaren artean dauden ezberdintasunak dira. Hauen artean, adimen-psikomotrizitate, hizkuntza-arrazoiketa eta adimen-afektibitate disinkroniak aurki ditzakegu.
- Disinkronia sozialak: haur goiztiarraren garapenaren barneko arauaren eta ume guztiei egokitutako arau sozialen arteko desfasea da. Askotan, gurasoek, eskolak eta gainontzeko umeek, portaera ``normala`` eskatzen diete haur goiztiarrei. Presio sozial hauek, efektu negatiboak izan ditzakete haurrengan. Hortaz, disinkronia soziala ekiditeko, eskola malguagoa eskaini behar diegula aipatzen da. Terrasier, J. C. (1990).

Era berean, haien adin kronologikoaren eta adin mentalaren artean dagoen ohiko disinkronia aipatu beharra dago. AGHko haurrek, gehienetan, adimen gaitasun bereko lagunak daukate. Azken hauek, haur nagusiagoak edo pertsona helduak izaten dira.

### 1.3. Adimen gaitasun handiko neskak

Gure gizartean aurkitzen dugun genero bereizketa, AGHko nesken gan islatu egiten da. Hauek, bazterketa bikoitza jasotzen dute: emakume bezala eta AGHko neska gisa. Gainera, zoritxarrez, gure hezkuntza sisteman baterako hezkuntza<sup>5</sup> ez da errealitate bat. Irakasle on papera erabakigarria da baterako hezkuntza honen lorpenean.

AGHko ikasle bezala identifikatutako 10 ikasletik, 7 mutilak dira eta 3 besterik ez neskak. Pérez, L., eta Domínguez, P. (2000). Identifikatzen diren haurretatik % 66,4 mutilak dira eta % 33,6 neskak. Junquera, N. (2015). Gure inguruneari erreparaturaz, Aupaturaz-en<sup>6</sup> arabera, elkarteko bazkide diren 200 haurretatik, %75 mutilak dira eta %25 neskak. Alcagi-ri<sup>7</sup> erreferentzia eginez, elkartea osatzen duten familien % 65 mutilen familiak dira eta % 35 neskenak. Elkarte honek daukan erreferentziazko eskolan, 17 haurren kasuak jarraitzen dituzte, guztiak mutilak izanik. EAEko gaur eguneko datu orokorrei erreparaturaz, datu ofizialek, AGHko 218 haur daudela adierazten dute. Hauen artean, % 29,4 neskak dira.<sup>8</sup> Ministerio de Educación Cultura y Deporte (2015).

AGHko neska horiei, gizarteak estereotipo sozial zehatz batzuk zehazten dizkie. Horrexegatik, sarritan, lortu ahal dutenaren eta gizarteak neskak izateagatik ezartzen diren arteko gatazkak sortzen dira. Neska horien identifikazioa egon ezean, oso zaila da behar duten hezkuntza premia zehatzei erantzutea. Hortaz, ezinbestekoa da hauek dituzten ezaugarriak lehenbailehen ezagutzea.

---

<sup>5</sup> Baterako hezkuntza: "Hezkuntza metodo bat da, sexuen arteko berdintasunetik eta bazterketa ezetik abiatzen dena".

Haur Hezkuntzako irakasle on papera erabakigarria da arlo honetan. Alde batetik imitazio ereduak garelako. Eta bestetik, gure gizarteko sexu-genero sistemaren eraginpean gaudelako. Hori dela eta, askotan inkontzienteki, gure jarreraren edo iritzien bidez elementu sexistak transmititzen ditugu. Arabako Foru Aldundia (2014:4); Ortiz, A. (2008).

"La escuela debe hacerse definitivamente coeducadora [...] ya no basta con admitir a las chicas en su seno sin contar con ellas [...] una sociedad que las acoja con justeza en el mundo laboral". Simón, M<sup>a</sup>. E. (2005:6).

<sup>6</sup> Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban AGHko haurren familiek osatutako elkartea.

<sup>7</sup> Gipuzkoan, AGHko haurrei zuzendutako ekintzak sustatzen dituen elkartea.

<sup>8</sup> Datu hauek, Hezkuntza Berezia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketari dagozkie.

### 1.3.1. Adimen gaitasun handiko nesken eta familien ezaugarriak

Jarraian, Haur Hezkuntzako AGHko neskak identifikatzeko, hauen eta familien ohiko ezaugarriak azalduko dira:

#### 1.3.1.1. Nesken ezaugarriak

**Haien gaitasunak ezkutatzeko joera:** honen ondorioz, identifikatuak izateko zailtasun handia dago. Ezkutaketa hau, sozialki onartuak ez izateko duten beldurratik egiten dute normalean. Honek, haien errendimenduan eragin negatiboa izan dezake.

**Talentu eta emetasunaren arteko gatazkak:** Neskek haien talentua adieraztearen eta sozialki onartuak izateko behararen arteko gatazkak izaten dituzte. ``La mujer no debe ser intelectualmente superior al hombre bajo pena de verse socialmente penalizada`` Coriat, A. R. (1990:52). Haien gaitasunak islatzen badituzte, sozialki onartuak ez izateko arriskua daukate. Horrexegatik, izan ahal direnaren eta gizarteak ezartzen dizkien rol tradizionalen arteko gatazkak ematen dira. Ellis, J., eta Willinsky, J. (1999).

**Interes txikia matematikak ikasteko:** gaitasun nahiko izan arren, neskek orokorrean ez dute interes handia adierazten gai hauek ikasteko. Ezberdintasun hauek txikiak dira haurrak direnean, baina denbora pasa ahala handiago egiten dira. Rodenstein, J. M., Pflieger, L. R., eta Colangelo, N. (1977).

Hau, neskak arlo honetan aitzindariak izatearen beldur direlako eman daiteke. Fox, L. H. et al. (1982).

**Autoestimua maila baxua:** AGHko neska askok haien gaitasunak errealitatean direna baino baxuagoak kontsideratzen dituzte. Askotan ez dute haien burua gai ikusten eta identifikatuak izateko beldurra sentitzen dute. Bell, L. A., eta Young, V. (1986). Autoestimua<sup>9</sup> baxu hau, askotan bere buruarekiko duten autokritika maila altuaren

---

<sup>9</sup> Autoestimua, pertsonak haien buruarekiko adierazten duten balorazio afektibo orokorra da. Balorazio honetan, autokontzeptuak (bakoitzak bere buruari buruz duen irudia) dauka eragina. Axpe, I., Goñi, E., eta Zulaika, L. (2008).

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

ondorio da. Domínguez, P. (2003). Autoestimu baxu honi aurre egiteko, orientazio egokia behar dute haien familia zein irakasleengandik. Benito, Y. (1996). Autokontzeptu<sup>10</sup> negatiboa daukan haur batek, eskola porrota jasotzeko aukera gehiago dauzka. Klein, L. (1992).

**Gauzak gainontzekoek nahi duten eran egiteko joera:** neskek askotan besteek nahi duten erara egiten dituzte gauzak. Eskolan, egitekoak irakasleei gustua egiteko helburu bakarrarekin egin ohi dituzte. Hau oso argi ikus daiteke adibide honetan: AGHko neska bati pertsona bat marrazteko eskatu zitzaionean, hurrengoa erantzun zuen: ``¿Cómo quieres que te haga el dibujo, como lo hace mi seño con tres dedos o como lo hago yo con cinco?'' García, C., eta Benito, Y. (1992:122). Neskek ezagutzak eskuratzen dituzte baina hori ez da haien lehentasuna. Hori dela eta, ez dute ikasten ikasten. Safilios-Rothschild, C. (1987).

**Perfekziorako joera handia:** hainbat neskek, egiten dituzten gauza guztietan perfektuak izaten saiatzen dira. Horren ondorioz, bere buruari exigentzia handiak eginez, arlo guztietan onenak izaten saiatzen dira. Perfekzionismoaren bilaketa honek, bere buruarekiko arrazoizkoak ez diren helburuak finkatzea eragiten du. Reis, S. (1999).

**Arrakastaren beldurra:** neska hauetako askok, haien gaitasunak azaleratzen badituzte baztertuak izango direla uste dute. Arrakastarekiko beldur honek, haien gaitasunengan sinesteari ustea eragin dezake. Honek, haien bizitza osoan zehar eragina izan dezake. Gainera, neskek ekintza batean lortzen duten arrakasta zortzarekin lotzeko joera daukate. Porrota lortuz gero, hau handitzeko eta gaitasun faltarekin erlazionatzeko joera dute. Gainera, sarritan akatsak nabarmendu egiten dituzte. Simón, J., eta Feather, N. T. (1973). Hurrengo adibide honetan oso argi ikus daitezke beldur honek izan ditzakeen ondorioak; Marta eta Juanek, 4 urte eta 7 urteko adin mentala zuten. Baina haien ezaugarriak oso era ezberdinean azaleratzen zituzten. Juanek, bere adimen

---

<sup>10</sup> Autokontzeptuak, autoestimuan eragiten du. Hau, norberak bere buruari buruz pentsatzen duena edo daukan irudia da.

HHko haurren autokontzeptuan, pertsona esanguratsuegandik jasotako informazioa da gehien eragiten duena. Haurrek, 2 eta 5 urte dituztenean haien autokontzeptuaren oinarriak ezartzen dira. Autokontzeptua hobetzeari dagokionez, haurren bizitzaren lehenengo urteetan errazagoa izango da. Izan ere, adin honekin ez daukate irizpide propiorik eta gainontzekoek esandakoa izango da haientzat garrantzitsuena. Autokontzeptuaren hobekuntza honetan, Haur Hezkuntzan zeharkako esku hartzea izango da errazena. Hau, konfiantzazko giro bat sortzean datza, non pertsona onartuta sentituko den. Honetan, pertsonen arteko ezberdintasunak ezagutuak eta onartuak izango dira. Axpe, I., Goñi, E., eta Zulaika, L. (2008).

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

gaitasun handia harro erakusten zuen, baina Martak bere gaitasunak ezkututzen zituen. Irakasleak ikasle "normal" bat kontsideratzen zuen Marta, Juan AGHko ikasletzat hartzen zuen bitartean. Silverman, L. (1986).

Beste ikerketa batzuk, AGHko neskek tolerantzia handia dutela adierazi dute. Horrekin batera, neska hauek arduratsuak, malguak, autonomoak eta apalak direla erakutsi dute. Coriat, A. R. (1990),

### **1.3.1.2. Familien ezaugarriak**

AGHko nesken familien ezaugarriek neska hauengan duten eragina erabakigarria dela ikusita, jarraian hauei erreferentzia egingo zaie. HH-ko AGHko nesken portaera batzuk ulertzeko interesgarria izango delakoan, hasteko, arrakasta lortu duten AGHko nesken familien ezaugarriak aipatuko dira. Familia hauen maila ekonomikoa, batz bestekoaren gainetik kokatzen da gehienetan. Era berean, neska hauek haien familiaren sostengua eta estimulazioa izaten dute. Solomon, S. (1999:110): "Cuando había una ocasión en que había una discusión sobre un tema, se nos animaba a tener opiniones y a discutir las y apoyarlas". Horrekin batera, gurasoei erreparatur, AGHko neska hauen harremana gurasoekin ona izan ohi da. Amari dagokionez, hauek askotan haien garaiko estereotipo sozialak irudikatu dituzte. Baina ez dituzte haien alabak eredu horiek eskuratzera behartu.

Era berean, AGHko nesken familien ezaugarri orokorrei erreparatur, hainbat ikerketek adierazi dutenez, familia hauetan hezkuntzari garrantzia ematen zaio. AGHko neska hauetako gehienak, alaba bakarrak edo nagusiak direla frogatu da. Familien tamainari dagokionez, gehienek 2 seme-alaba dituzte. Gurasoen adina, berriz, batz bestekoaren gainetik kokatzen da eta familia hauek, hezkuntza maila eta maila sozial altua daukate. Gross, M. U. (1993).

Baina, zoritxarrez, AGHko neska guztien familia egoera ez da era honetakoa. Jarraian, porrota izan duten nesken familiek izan ditzaketan hainbat ezaugarri aipatuko dira: gehiegizko autoritatea familiaren aldetik, gurasoen balioen eta jarreraren arteko inkoherentzia, zoritxarreko giroa familian, muga ekonomikoak, haurren independentzia sustatzeko sostengu eskasa etab. Díaz, E. J. (1998).

Beraz, arestian ikusi ahal izan den familiaren garrantziarekin batera, AGHko neska hauentzat ezinbestekoa da haien gaitasunak kontuan hartzen dituen hezkuntza bat jasotzea. Izan ere, gurasoek eta eskolak haur hauek era egokian orientatzen eta laguntzen badituzte, AGHko nesken egoera hau asko hobetu daiteke. Hori dela eta, arestian aipatutako AGHko nesken eta haien ingurunearen ezaugarri hauek, neskek arlo ezberdinetan daukaten arrakasta edo porrotean eragina daukate. Sarritan, neska hauen arrakasta eskasa, bizitzako etapa ezberdinetan islatzen da. Haurtzaroari erreferentzia eginez gero, hau eskolan haien gaitasunen azpitik jardutean islatu daiteke. Honen ondorioz, ez dute ahal izango luketen guztia lortzen. Horrexegatik, haur hauek laguntzeko, irakasle moduan faktore hauetaz kontzientziazatuta egotea garrantzitsua izan daitekeelakoan, AGHko nesken arrakastan eta porrotean eragina duten zenbait faktore laburki aipatuko dira.

### **1.3.2. Nesken arrakasta - porrotean eragina duten faktoreak**

AGHko nesken egoera hobeto ulertzeari begira, hauen arrakastan edo arrakasta ezan eragina duten faktore ezberdinei erreferentzia egingo zaie. Hauen artean, hurrei askotan transmititzen dizkiegun estereotipo sozialetan zentratuko gara.

#### **1.3.2.1. Presio eta estereotipo sozialak**

Gure gizartean, emakumeen inguruko estereotipo ugari daude. Hasteko, guk irakasle moduan askotan hainbat estereotipo dauzkagu barneratuta. Irakasle zein gurasoek estereotipo hauek indartzen dituztenean, AGHaren garapena eragozten dute. Fox, L. H., eta Zimmerman, W. (1988). Era berean, neska hauek gurasoengandik, irakasleengandik, kideengandik, hedabideengandik etab. jasotzen dituzten sozializazio presioen eraginez, haien rol sexualari dagozkion interes eta jarrerak barneratzen dituzte. Presio hauek, neska hauen lorpen eta itxaropenetan dute eragina eta sarritan, eskolan erabiltzen diren material eta tresna ezberdinen bidez indartzen ditugu:

**Ipuinak eta filmak:** hurrei zuzendutako ipuinen eta filmen bidez, sarritan hainbat rol transmititzen dira: ``las mujeres (...) debemos ser generosas, humildes,

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

calladas... solo así conseguiremos el ansiado premio: un príncipe azul que nos cambiara la existencia''. Osoro, J. (2009:13).

``Blancanieves o Cenicienta colocan a las mujeres y a las niñas en una situación pasiva, en la que el protagonista, generalmente masculino, tiene que realizar diversas actividades para salvarla'' Santamaría, P. (2010). Gaur egun, gero eta autore gehiagok idazten dituzte estereotipo hauek apurtzen dituzten ipuinak.<sup>11</sup> Hala ere, gehienetan, eskoletan ipuinak aukeratzeko orduan, baterako hezkuntzaren irizpideari ez zaio lehentasuna ematen. Moreno, M<sup>a</sup>. A. (2007).

**Jostailuak:** sarritan, neskak jostailu mota batzuk erabiltzera bideratzen ditugu. Neskei eskaintzen zaizkien jostailuak, etxeko lanekin eta haurren zaintzarekin erlazionatuta daude. Neskek jolasaren bidez besteen zaintzarekin erlazionatutako baloreak barneratzen badituzte, nagusiak izango direnean txikitik ikasitako horrekin erlazionatutako lanak aukeratzeko dituzte. Royo, C., eta Fàbregues, S. (2014). Haurrei eskolaurreko etapan jostailu ezberdinak aukeratzeko ahalbidetzen zaienean, mutilek eta neskek berberak aukeratzeko joera dutela baieztatzen da. Baina, etapa horretatik aurrera, presio sozialaren eraginez, aukeraketa horretan ezberdintasun nabarmenagoak ikusten dira. Asociación Mundial de Educadores Infantiles (2006).

**Hedabideak:** hauek oso erakargarriak dira haurrentzat, baina, sarritan, estereotipoak zuzenean eta era eraginkorrean transmititzen dizkiete. Mutilei zuzendutako iragarkiek, zarata, soinu efektu... gehiago dituzte. Aitzitik, neskei zuzendutako iragarkietan musika leunagoa da, fintasuna eta leuntasuna adierazten duten argazkiak agertzen dira. López, P. (2005).

**Hizkuntza:** askotan ``nesken jolasak dira'' edo ``mutilek ez dute negarrik egiten'' bezalako esaldiak entzuten dira. Hala ere, euskara gaztelania bezain sexista ez dela aipatu beharra dago. Gaztelaniaz, hizkuntza sexistaren artean nabarmentzen den joera, emakumezkoak eta gizonezkoak aipatzeko gizonezkoen generoa erabiltzea da. Aitzitik, euskaraz, gurasoak, familiak, haurrak eta antzeko termino ez sexistak nagusitzen dira. Alfonso, P., eta Aguado, J. P. (2012).

---

<sup>11</sup> Ikus gehiago: Basauriko Udaletxea (2014). *Colección a favor de las niñas de Adela Turín*. 2015-04-26an hartua, hemendik: <http://www.congresoed.org/wp-content/uploads/2014/02/Recomendaciones-de-Publicacionesen-Favor-de-las-ni%C3%B1as.pdf>

Beraz, irakasle bezala barneratuta dauzkagun estereotipoak eta eskolan erabiltzen ditugun tresna ezberdinen bidez transmititzen ditugun estereotipoak aztertu ondoren, ukaezina da gelan hauek transmitituz gero, AGHko nesken egoera oraindik gehiago zailtzen dugula.

### **1.3.2.2. Inguruneko faktoreak eta alderdi kulturalak**

AGHko neska hauen inguruneko faktoreek haien egoeran dute eragina. Maila sozio ekonomiko altuko neskek, arrakasta lortzeko aukera gehiago izaten dituzte maila baxuko neskekin alderatuz. Azken hauek, gehienetan ez dute familiaren orientazioa jasotzen. Hori dela eta, egora zail hauetan bizi diren neska hauek laguntzeko estrategiak beharko genituzke. Reis, S. (1999).

### **1.3.2.3. Hezkuntza sistemaren bidez jasotzen dituzten mezu kontraesankorrak**

Haien gaitasunak garatzerako orduan, alde batetik, haien potentziala garatzera animatzen zaie. Baina bestetik, transmititzen zaizkien estereotipo ezberdinen bidez, aspektu sozialengatik arduratzera bideratzen zaie. Noble, K. D. (1987).

### **1.3.2.4. Arrakasta lortu duten emakumeen eredu falta**

Neskek sozialki haien sexuari egokituta ez dauden ikasketak aukeratzen ez dituztela egiaztatzen duten ikerketak daude. Nahiz eta ikasketa batzuk gustuko izan, azkenean gizarteak haien sexuko rolak kontsideratzen dituenak aukeratzera jotzen dute. Astin, H. S., Harway, M., eta Mcnamara, P. (1976). Era berean, eskolan, arrakasta lortu duten emakumeen eredu gutxi eskaintzen zaizkie.

## **1.3.3. Adimen gaitasun handiko neskei laguntzeko prozedurak**

AGHko neskek bizi duten bereizketa hau aztertuta, ezinbestekoa da gizarte eta hezkuntza sistema neska hauen potentziala estimulatzeko beharraz kontzientziatzea. Horretarako, garrantzitsua izango da neska hauei haien potentziala garatzea ahalbidetzen duten espazio, estrategia eta estiloak eskaintzea. Hau, irakasle eta haien familiaren eskuetan egongo da batez ere. Beraz, neska hauen egoera hobetzeari begira,



irakasleon esku hartzeak daukan garrantzia ikusita, jarraian, AGHko neskei laguntzeko hainbat prozedurei erreferentzia egingo zaie. Horretarako, hainbat autoreen ekarpenak hartu ditugu kontuan: Silverman, L. (1986), Silverman L. (1989), Fox, L. H., eta Zimmerman, W. (1988), Pérez, L. (2002:52), Rodenstein, J. M. eta Glickauf-Hughes, C. (1977), García, C. (1997), Pérez, L., eta López, C. (2007).

1. **Identifikazio goiztiarraren beharra.** Ezinbestekoa da nesken identifikazioa 4 eta 7 urte bitartean egitea, adin horrekin haien talentua zein den asmatzeko aukera gehiago izango baititugu. Gainera, adin horretatik aurrera, neskek haien gaitasunak gutxiesteko joera handiagoa daukate eta identifikazioa askoz zailagoa izango da.
2. **AGHko beste neskekin erlazionatzea.** Antzeko interesak dauzkaten AGHko neskekin erlazionatzea behar dute. Neska hauentzat oso garrantzitsuak izango dira jasotzen dituzten ereduak. Arrakasta duten emakumeekin harremanetan egotea behar dute.
3. **Programa berezietan parte hartzea.** Programa hauetan parte hartzen duten neskak gero eta gehiago izanda, emaitzak egokiagoak direla baieztatu da. Askotan, taldeak mistoak direnean, neskek gutxiago parte hartzen dutela baieztatuta dago. Jarrera hau, huts egitearen beldur direlako edo gainontzekoek haien gaitasunez ohartzearen beldur direlako eman daiteke. Programa hauetan, neskak haien egoeraz kontzientziatzen dituzten elementuak gehitu behar dira.
4. **Matematikako edukiekiko jarrera positiboa.** Matematiketan AGHa daukaten neskek, sarritan, haien arrakasta irakasle baten estimuluarekin lotzen dute.
5. **Eredu femeninoak gehitzea. Lanbide ez estereotipatuak.** Neska hauen aukeraketa profesionalari begira, seguruak senti daitezen, hauen oinarri emozional eta afektiboa indartzen duen esku hartzea egin behar da txikiak direnetik. Neska hauek, ez dutela familia eta lanbidearen artean aukeratu behar ikasi behar dute.
6. **Aita haien bizitzetan sartzea.** Neskak aitaren ereduan oinarritu daitezke haien iritziak sortzeko. Adibidez, aita batek bere alaba edertasunagatik, bere adimenagatik baino gehiago saritzen badu, neska honek bere adimena erakutsiz gero mutilek ez dutela aintzat hartuko uler dezake.
7. **Genero estereotipoak ekiditea.**
8. **Haien independentzia sustatzea.**
9. **Haiengan itxaropen handiak erakustea.** Neska hauengan ditugun itxaropenak eta jarrerak zaindu behar ditugu.

- 10. Ez ditugu AGHko neskak ikusezinak egin behar.** Horretan, eskolak zein familiak ardura handia daukate. Familiaren inplikazioa ezinbestekoa da. Funtsezkoak dira familiari zuzendutako orientabideak.
- 11. Talde txikietan edo indibidualki aholkularitza saioak** egin daitezke. Hauetan, neska hauen interesak eta nahiak aipatu daitezke.
- 12. Neska hauek haien sentimenduak,** beldurrak eta iritziak **adierazten lagundu** behar ditugu. Haur hauek haien kabuz konpontzen diren ustea alde batera utzi behar da. Hezkuntza aldetik esku hartze egoki bat jasotzen ez badute, galdu egingo dira. Ezin dugu ahaztu haur hauek eskola porrota jasan ditzaketela.
- 13. Perfektuak ez direla adierazi** behar diegu. Zentzu honetan Pérez, L. (2002:52): ``enseñar [...] a no ser ``abejas reinas´´<sup>12</sup> [...] haríamos mejor en enseñarlas que es imposible ser perfectas en todo lo que hacen, y que puede que no sean capaces de hacerlo todo bien, no por falta de capacidad, [...] sino por falta de tiempo físico´´.
- 14. Neska hauen ohiko ezaugarrietako bat autoestimua baxua izatea dela kontuan hartuta,** **autoestimua hobetzeko** erabil daitezkeen hainbat jarduera gehitu dira. Arzo, A. (2013).

## 2. Metodologia

Lanarekin hasteko, gaiaren inguruko literatura zientifikoa aztertu da, gaztelaniazko eremua gehienbat. Hasiera batean, AGHen terminoa, bera azaltzeko dauden ereduak eta haur hauen Haur Hezkuntzako ezaugarriak aztertu dira. Datu orokor horiek ezagutu ostean, AGHko nesken inguruan dauden hainbat ikerketa aztertu dira, neska hauen ezaugarrietan, arrakasta-porrotan eragina duten faktoreetan eta neska hauei laguntzeko prozeduretan sakonduz. Gai honen aukeraketaren arrazoia, AGHko oso neska gutxi identifikatuta daudenez, arazo honen aurrean neurriak lehenbailehen hartu behar ditugunaren ustea izan da. Lanak, irakasleak eta familiak Haur Hezkuntzako adimen

---

<sup>12</sup> ``El perfeccionismo que se da en muchas de estas mujeres dotadas intelectualmente las lleva a querer convertirse en una mujer que es capaz de tener éxito en su trabajo como un hombre, mientras que mantiene simultáneamente su feminidad y su éxito como madre y esposa. Sin embargo para ellas nunca es suficiente. Su perfeccionismo las empuja también a luchar por tener un cuerpo diez, tener la casa reluciente y tener unos hijos perfectos y maravillosos. Llega un momento en que de asfixian porque debido a que no delegan, no pueden con todo y entonces se rompen y acaban por sentirse culpables.´´ Madrid, V. (2011).

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

gaitasun handiko neskek identifikatzeko eta laguntzeko, hauek baliabidez hornitzea du helburu nagusi. Hurrengo hauek dira lanaren bidez lortu nahi diren helburuak:

1. HHko irakasleak adimen gaitasun handiko nesken egoera bereziaz ohartzea.
2. AGHko nesken ezaugarri bereizgarriak aditzera ematea.
3. Irakasleek HHko AGHko nesken eta haien familien berezitasunak ezagutzea.
4. Irakasleek HHko adimen gaitasun handiko neskei laguntzeko prozedurak ezagutzea.
5. HHko irakasleei eta familiei AGHko nesken beharrei erantzuten laguntzeko tresnak proposatzea, bideoa eta behaketa tresna, hain zuzen ere.

Ekarpen didaktikoak sortu aurretik, errealitatea ezagutzeko, AGHko hurrekin lanean diharduen eta arlo honetan formazioa jaso duen irakaslea elkarrizketatu da. Elkarrizketa egin aurretik, honi bere elkarrizketa eta ahotsa lanean agertzeko baimena eskatu zaio (*Ikus III. Eranskina*). Elkarrizketan, aurretik prestatutako gidoia jarraitu da, (*Ikus IV. Eranskina*). Hizketaldia bi ordukoa izan da, grabatu eta ondoren transkribatu egin da. Hori eginda, elkarrizketa horretatik esanguratsuak izan diren hainbat ondorio atera dira (*Ikus V. Eranskina*). Elkarrizketa horretan lortutako ondorio horiek, ekarpen didaktikoak sortzeko erabili dira. Hori egin ostean, Aupatuz eta Alcagi erakundeekin harremanetan jarri gara eta hauek emandako hainbat datu lanean gehitu dira. Horretarako, baimena eskatu zaie (*Ikus VIII. eta IX. Eranskinak*).

Jarraian, HHko AGHko neskek identifikatzea eta laguntzea helburu duten ekarpenak sortzera pasatu da. Lehenengo ekarpena, AGHko nesken ezaugarriak, haien egoeran eragina duten zenbait aldagai eta hobetzeko proposamenak biltzen dituen bideoa izan da. Hori egin aurretik, oinarria izan den gidoi bat prestatu da (*Ikus VII. Eranskina*). Bideoa, haur Hezkuntzako gela bateko neska batean zentratzen da. Hori posible izateko, ikasle honen gurasoei neska bideoan agertzeko baimena eskatu zaie (*Ikus VI. Eranskina*). Neska honek, AGHak ditu baina inor ez da horretaz konturatu. Haur honek gelan adierazten dituen jokaera batzuen bidez, AGHko nesken ezaugarri ohikoenei erreferentzia egiten zaie. Honekin ez da neska hauen ezaugarriak jokabide horien bidez soilik antzeman daitezkeela adierazi nahi. Esanguratsuagoa izan dadin, ezaugarri hauek, gelan egunero eman daitezkeen egoeren bidez islatu dira. Era berean, eskolan neska hauen egoerari kalte egiten dioten hainbat estereotipo sozial agertzen dira. Hauek argazki ezberdinen bidez azaltzen dira. Horrekin batera, irakasle zein familiek hartu ditzaketen hainbat neurri aipatzen dira. Aurreko hauek islatzeko, musika eta irudiak

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

aukeratu dira eta audioa gehitu da (nire ahotsa eta irakaslearen ahotsa). Audioaren bidez ematen diren azalpenak, une horretan agertzen diren argazki eta bideoekin bat etortzen dira. Bideoaren amaieran, AGHko hurrekin lan egin duen irakasleak emandako hainbat gomendio eta Alcagi eta Aupatuz elkarteetako kideek eman dizkiguten hainbat datu agertzen dira. Hauek, pertsona hauen hitzak eta esperientziak irakasle eta familientzat baliagarriak izango direlakoan gehitu dira.

Bigarren ekarpena, HHko irakasleei eta familiei zuzendutako eta bideoan oinarritutako, AGHko neskak antzemateko behaketa tresna izan da. Horren aurretik, orokorrean, AGHko haurrak identifikatzeko baliagarria izan daitekeen galdera-sorta gehitu da. Nik sortutakoa, berriz, AGHko neskak identifikatzea helburu duten hainbat galderetan oinarritzen da. Era berean, neska hauei laguntzeko erabilgarriak izan daitezkeen hainbat prozedura zerrendatu dira. Hauen helburua, irakasleentzat zein familientzat askotan oso zaila den egitekoa erraztea da; neska hauek identifikatzea eta laguntzea, alegia. (*Ikus II. Eranskina*).

### **3. Lanaren garapena**

Gradu Amaierako Lanari hasiera emateko, Unibertsitatean hainbat formazio saio izan genituen kurtsoaren hasieran. Tutorearekin, hasieran taldeka eta ondoren bakarka hainbat bilera izan genituen. Gaia ezagutzeko, hainbat iturri kontsultatzea beharrezkoa izan zen, hasteko, Eusko Jaurlaritzak (2013) adimen gaitasun handien inguruan argitaratutako gida aztertu zen. Hori eginda, AGHko haurren inguruko informazio-saio batera joan nintzen. Gaiaren inguruko informazio orokorra jaso eta aztertu ostean, bakoitzak bere gaia definitu behar izan zuen, hasierako izenburua hau izan zelarik: *Adimen gaitasun handiko nesken teoritik abiatuz, Euskal Herriko errealitateko kasu batzuen azterketa: adimen gaitasun handiko neskak laguntzeko prozedurak*.

Lanaren izenburua eta helburu nagusiak zehaztuta, alde teorikoa osatzera pasatu zen. Autore eta eredu anitzak aztertu ondoren, guzti horiek laburtu ziren. Azterketa teorikoa osatuta, gure inguruneko errealitatearen ikerketa txiki bat egitea zen gure helburua. Ikerketa hori egiteko, AGHko Haur Hezkuntzako nesken irakasleak elkarrizketatzeko helburua genuen. Horretarako, elkarrizketa-gidoi bat sortu zen.

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Elkarrizketak egin aurretik, Berritzeguneko Eskola Inklusiboko eta Hezkuntza Premia Berezien arduradunari gutun bat bidali zitzaion (*Ikus I. Eranskina*). Honen helburu nagusia, AGHko Haur Hezkuntzako nesken irakasleekin harremanetan jartzea izan zen. Baina, arazo legalak egon zitezkeenez, lana guztiz aldatu behar izan zen. Arazo horri aurre egin behar izateak, lana zaildu eta luzatu egin zuen. Horren ondorioz, irakasleak eta familiak AGHko nesken egoeraz kontzientziatzen dituen eta haur hauek identifikatzen eta haien beharrei erantzuten laguntzen dieten tresnak sortzea erabaki zen. Hori zehaztuta, lanaren helburu berriak eta behin betiko izenburua osatu ziren.

Hori eginda, ekarpen didaktikoak sortu aurretik, AGHko ikasleekin lan egin duen irakasle bati elkarrizketa egitea erabaki genuen. Elkarrizketa horretan bildutako datuen azterketatik, hainbat ondorio atera ziren. Hori egin ostean, Haur Hezkuntzako irakasleei eta familiei zuzendutako ekarpenak sortzera pasatu zen. Alde batetik, AGHko nesken egoera islatzen duen eta hauei laguntzeko hainbat prozedura adierazten dituen bideoa sortu zen. Hasteko, bideoaren gidoia eta materiala zehaztu eta ondoren, bideoaren protagonista aukeratu eta haurren familiari baimena eskatu zitzaion. Azkenik, argazkiak eta bideoak aukeratuta, audioa sartu eta bideoaren muntaia osoa egitera pasatu zen. Bestetik, nik sortutako, AGHko neskek identifikatzea eta laguntzea helburu duen behaketa tresna eta hauei laguntzeko hainbat prozedura gehitu ziren. Hauekin batera, lagungarria izan daitekeelakoan, hainbat adituk proposatutako AGHko haurrak identifikatzeko galdera-sorta gehitu zen.

Lan honi esker, AGHko haurren hainbat berezitasun eta neskek bizi duten egoera eta hauen hainbat ezaugarri eta laguntzeko prozedura ezagutu ahal izan dira. Irakasleei zuzendutako eta familientzat baliagarriak izango diren neska hauek identifikatzeko eta laguntzeko tresnak, haur hauen egoera hobetzeko proposamen ezberdinen parte izango direlarik.

#### **4. Ekarpen didaktikoak**

Arestian adierazi dudan bezala, bideoa eta behaketa-tresna bat sortu dira. Ekarpen didaktiko hauen bidez lortu nahi dena, Haur Hezkuntzako etapan AGHko nesken identifikazioa eta laguntza erraztuko duten baliabideak sortzea izan da. Hasiera batean,

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

ekarpen hauek irakasleei zuzentzea pentsatu zen, baina familientzat ere erabilgarriak izan daitezkeela kontuan hartuta, hauei ere zuzentzen zaizkie.

Bideoari dagokionez, hasteko gidoi bat sortu da (*Ikus VII. Eranskina*). Bideo honetan, AGHko nesken ohiko ezaugarriak adierazi dira gela erreal batean kokatutako neskaren istorioaren bidez. Horretarako, haur horien gurasoei eta bereziki protagonista den neskaren gurasoei baimena eskatu (*Ikus VI. Eranskina*) eta hurrei hainbat argazki eta bideo atera zaizkie. Baimena izan arren, haur hauek adin txikikoak izanda, aurpegia estaltzea egokiagoa dela erabaki dugu. Era berean, haur hauen benetako izena asmatutako beste batez ordezkatu da eta haien ahotsak gehitzearen orde, programa berezi batekin sortzea erabaki da. Nesken ezaugarri horiekin batera, AGHko neska hauen egoeran eragina duten zenbait aldagai eta hauek laguntzeko hainbat prozedura aipatzen dira. Bukatzeko, elkarrizketatutako irakasleak aipatutako gomendio batzuk eta Alcagi eta Aupatuz elkarteetatik eskuratutako hainbat datu gehitzen dira. Bideoak 12 minutu inguruko iraupena du eta lanaren amaieran kokatutako CD batean sartu da.

Behaketa tresnari erreparatuz, alde batetik, hainbat autorek proposatutakoak aztertu ostean, interpretatzeko errazena iruditu zaigun Eusko Jaurlaritzak (2013) argitaratutako gidan gehitzen den 3-4 urteko AGHko haurrak antzemateko galdera-sorta gehitu da. Bestetik, AGHko neskak identifikatzen lagundu ditzakeen beste galdera-sorta bat sortu eta hauei laguntzeko erabilgarriak izan daitezkeen hainbat prozedura zerrendatu dira.

## 5. Ondorioak

- Gaur egun, asko dira identifikatuta ez dauden eta behar duten trataera jasotzen ez duten AGHko neskak. Hau, besteak beste, gizarteak neskengan daukan eraginaren ondorioz ematen da. Sozialki, ez da onartzen neskek arlo batzuetan nabarmentzea. Ondorioz, AGHko neska askok haien gaitasunak ezkutatzera jotzen dute. Hortaz, garrantzitsua izango da neskak gaur egun mutilei dagozkien arlo ezberdinetan sartzea. Neskek mutilek bezalako aukerak izan beharko lituzkete eremu guztietan.

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

- Neskek, hainbat estereotipo barneratzen dituzte txikiak direnetik eta eredu hauek, haien egoera are gehiago zaildu egiten dute. Hori dela eta, oso garrantzitsua izango da erabiltzen ditugun materialak, jostailuak, hizkuntza etab. zaindu eta aztertzea.
- Eskolan, gizartean kargu garrantzitsuak izan dituzten eta arrakasta lortu duten emakume gehiagoren ereduak eskaini beharko genizkieke. Era honetan, haien gaitasunak adierazteko erraztasun handiagoa izango lukete.
- AGHko neska hauek behar duten hezkuntza jasotzeko, haien bizitzaren lehenengo urteetan identifikatzeak garrantzi handia dauka. Hortaz, bideoan, neska hauek adierazten dituzten hainbat portaera eguneroko ekintzen bidez, era argian, islatzen dira. Ekarpen hauek, irakasleak eta familiak identifikazio goiztiar honen garrantziaz kontzientziatzeko eta honetan laguntzeko baliagarriak izan daitezkeela uste dut.
- Irakasleari egindako elkarrizketa aztertuta, neska hauei laguntzeko prozeduren barnean, ezinbestekoa izango da AGHko beste neskekin erlazionatzea. Era honetan, ez dira bakarrik sentituko eta aurrera egin ahal izango dute. Era berean, guraso eta irakasleek neska hauen beharrak ulertuz gero, hauen gaitasunen garapenean asko lagun dezakete.
- Alcagi eta Aupatuz elkarreentako datuak eta gure Autonomia Erkidegoko datuak aztertu ostean, AGHekin identifikatutako neska kopuruaren inguruko datuak oso kezkarriak direla uste dut. Horrexegatik, datuek agerian usten duten arazo honi eta dagoen ezjakintasunari aurre egiteko, gai honen inguruko informazioa zabaltzen hasi beharko ginateke.
- Azkenik esan, lan honek AGHko gaien sakontzeko aukera ematearekin batera, nire ikuspuntua aldatzen lagundu didala. AGHko haurrek osatutako taldea uste nuena baino heterogeneoagoa da. Generoaren arloan, neskek eremu honetan ere jasotzen duten bazterketa aztertu ahal izan dut. Era berean, neska hauek dituzten hainbat portaera aztertzeak, haien egoera ulertzen lagundu dit. Gainera, haur hauek identifikatzeko eta laguntzeko estrategia ezberdinak ezagutzea oso aberasgarria izan da nire etorkizun profesionalari begira, horrexegatik, etorkizunean, ikasle hauek

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

laguntzeko aukera izatea gustatuko litzaidake. Bukatzeko, lan honek, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurren inguruan gehiago ikastera motibatu nauela aipatzea gustatuko litzaidake.

## 6. Erreferentzia bibliografikoak

Alfonso, P., eta Aguado, J. P. (2012). *Estereotipos y coeducación*. 2015-04-27an hartua, hemendik:

[http://fongdcam.org/manuales/genero/datos/docs/1\\_ARTICULOS\\_Y\\_DOCUMENTOS\\_DE\\_REFERENCIA/D\\_EDUCACION/Estereotipos\\_y\\_Coeducacion.pdf](http://fongdcam.org/manuales/genero/datos/docs/1_ARTICULOS_Y_DOCUMENTOS_DE_REFERENCIA/D_EDUCACION/Estereotipos_y_Coeducacion.pdf)

Arabako Foru Aldundia (2014). *Zer da baterako hezkuntza?*. Generoa aisialdian, 2015-04-10ean hartua, hemendik:

[http://www.alava.net/IFJ/Adjuntos/pdf/999/folletoJuventud\\_eus.pdf](http://www.alava.net/IFJ/Adjuntos/pdf/999/folletoJuventud_eus.pdf)

Arzoz, A. (2013). Autoestimua lantzeko ariketak Haur Hezkuntzan. 2015-04-23an hartua, hemendik:

<https://docs.google.com/viewer?a=v&pid=sites&srcid=ZWR1Y2FjaW9uLm5hdmFycmEuZXN8aWthcy1vcmlbnRhemlvYS1ldGEtdHV0b3JldHphfGd4OjZmYTYyZTJhMzlhNWE3ZGI>

